



**2014KO URRIAREN 16KO OSOKO  
BILKURAREN ERABAKIAK**

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO  
EL DÍA 16 DE OCTUBRE DE 2014**

**6. Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, udaltzaingoetan erretiro-adina aurreratzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0533]**

**6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, relativa al anticipo de la edad de jubilación en las policías locales. [10\11\02\01\0533]**

EA-NV, EH Bildu eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu y SV-ES.

154/2014

154/2014

\*1. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari galdegiten dio behar den tramitazioa has dezala EAEko udaltzaingoan kideen erretiro-adinean koefiziente murriztaileak aplikatzeko, Ertzaintzari aplikatzen zaizkion baldintza beretan.

\*1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a que inicie la tramitación necesaria para la aplicación de los coeficientes reductores en la edad de jubilación a los miembros de los cuerpos de las policías municipales del País Vasco, en las mismas condiciones que se contemplan para la Ertzaintza.

2. Horretarako, Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari galdegiten dio Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen legislazioa alda dezala Estatuko udaltzaingoan kideen erretiro-adinean koefiziente murriztaileak aplikatzeko 1/1994 Errege Legegintzako Dekretuaren berrogeita bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusten diren baldintza beretan. Dekretu horren bidez onartu zen, hain zuzen ere, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, Gizarte Segurantzaren arloko neurmiei buruzko abenduaren 4ko 40/2007 Legearen bidez sartu zena.

2. Para ello, el Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a que modifique la legislación vigente en materia de la Seguridad Social para la aplicación de los coeficientes reductores de la edad de jubilación a los miembros de los cuerpos de policías locales del Estado, en las mismas condiciones que se contemplan en la disposición adicional cuadragésima quinta del Real Decreto Legislativo 1/1994, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, introducida por la Ley 40/2007, de 4 de diciembre, de medidas en materia de Seguridad Social.

3. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio idatz dezala lanbide-gaixotasunen katalogo bat, polizien osasuna babesteko eta amaiera emateko oraingo erretiro-adinaren bidegabekeriari, ez baititu kontuan hartzen sektoreko ezbehar-tasa, lan-baldintzen nekagarritasuna, arriskua eta toxikotasuna, ez eta langileei eragiten dizkien lanerako ezintasuneko prozesuetan duen eragina, eta, ondorioz, tokiko polizia-lanbidea arriskuko lanbidetzat har dezala".

3. El Parlamento Vasco solicita al Gobierno de España la redacción de un catálogo de enfermedades profesionales con el objetivo de proteger la salud y poner fin a la injusticia de una edad de jubilación que no tiene en cuenta la siniestralidad en el sector, la penosidad, peligrosidad y toxicidad de las condiciones de trabajo, así como la incidencia en los procesos de incapacidad laboral que genera y que, en consecuencia, reconozca, entre otras, la profesión de policía local como profesión de riesgo".

